

Hitza	Esanahia
aise	'erraz'
altzo	'magala, sabel aldea'
amarru	'azpikeria, maltzurkeria'
amorfo	'ganorabakoa, zentzugabea'
anabasa	'nahaste-borrastea, nahaspila'
arestian	'lehenago, duela gutxi, oraintsu'
arramaka	'orroka, alarauka'
artean	'orduan, oraindik (irag.)'
astazakil	'astapotroa, basapiztia'
atabiko	'zaharra'
atxur	'mozkorra, legatza'
barrabaseko	'deabruzkoa'
barren	barrez (Baieztapena indartzeko hitza)
begitandu	'iruditu'
behingoz	'azkenerako!'
behinik behin	'behintzat, bederen'
berbarako	'esaterako, kasurako'
berbetan	'hizketan, eleketan, solasean'
berri-lapiko	'nonzebarria, hitzontzia'
biharamun	'ostea, ajea (mozkor ostekoa)'
bistadizo	'begiratua'
bits	'aparra'
denero	'den bakoitzean'
dingilizka	'eskegita, zintzilik'
dizdizari	'distiratsua, ñir-ñir egiten duena'

Hitza	Esanahia
doako	'dohainik, debalde'
eder askoa	'eder-ederra, oso ederra'
eldarnio	'sukar-zorabioa, haluzionazioa'
erkin	'ahula, argala'
erronka	'desafioa, eupada'
erru ziztrinik	'erru apurrik'
eskarmentu	'esperientzia'
ezagutze aldera	'ezagutzearren'
ezpada	'baizik eta, ezpadaze'
gaeliko	'hizkuntza zeltikoa, irlandera'
galapaka	'trostan, taupadaka'
garunbako	'txoriburua, burua hutsik duena'
gehiago ez ekin	'ez jarraitu, ez tematu'
gibel	'atzean, ostean'
gomuta	'oroitzapena'
hagitzez	'askoz'
harilkatu	'haria bildu, astalkatu'
herabe	'lotsatia'
hitz eta pitz	'berba eta berba'
hurrupatuta	'xurgatuta'
iaio	'trebea, abila'
isiltasun mutu	'erabateko isiltasuna'
itzel	'ikaragarria (kristorena)'
jo eta dale	'etengabe, lotu barik'
kanpai jotzea	'masturbatzea (mutilak)'

Hitza	Esanahia
kargu hartu	'kontuak eskatu'
karkara	'barre algara'
kilkir	'kilkerra, txirri-txirria'
koitadu	'gaixoa, gizajoa'
laga	'utzi'
lagun portatu	'adiskide baten moduan jokatu'
lakar	'laztasuna'
langar	ziri-miria moduko euria, lanbroa'
lar	'oso-oso, gehiegi'
lartxo	'gehiegitxo'
lausotu	'difuminatu, gandutu, lanbrotu'
legetxe	'bezalaxe, modu-moduan'
legez	'bezala'
letania	'zerrenda'
likatsu	'lirdingatsua, mukiz bustia'
likits	'itsaskorra, nazkagarria, lohia'
limurtu	'konbentzitu'
liskar	'istilua'
lizunduta	'usteltzen hasia bezala, umelduta'
maiseatu	'gaizki esaka aritu, kritikatu'
malkar	'aldapa harritsu, troka'
mami	'muina, (okela) gogorra'
mauka	'aukera bikaina (txolloa)'
mikatz	'mingotsa, zapore desatsegina'
ñabardura	'xehetasuna'

Hitza	Esanahia
orbaindu	'zauri itxi'
pitorik ez	'ezertxo ere ez, batere ez'
pittinka-pittinka	'apurka-apurka'
potxingo	'bideko ur putzutxo'
sama	'eztarria, iduna'
sargori	'bero sapa, bero itogarria'
supituan	'bat-batean, kolpean'
tripak gurru eta	'etrdipuakki orroaka eduki'
trumilka	'samaldan, tropelean, piloan'
txango	'bidaiatxo, laburra eta ez urrun'
txilibitu	'zakiltxo'
txin-txinka	'topa egiten'
txingor	'inetasia, kazkabarra'
txintxilikariodun	'gizonezkoak, arrak' (zerbait zintzilik)
txirikordatu	'trentzatu'
txoropito	'txoriburua, leloa, pepelerdoa'
txutxu-mutxu	'ahapeka hitz egin, marmarka'
uzkur	'mesfidati, hurbildu gabe'
xeratsu	'laztanezkoa, ferekazkoa'
xira	'euritarako jantzia, zira'
zein baino zein	'nor baino nor, irmo'
zin degizut	'agintzen dizut'
ziplo	'ustekabea, brausta'
zirrara	'hunkipena, emozioa, inpresioa'
zohikatz	'turba, ikatz mota'